

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

1799

AGINDUA, 2020ko martxoaren 11koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez ematen baita Gizarte Zientzien eta Humanitateen modalitateko 2019ko Ikerkuntzako Euskadi Saria.

Hezkuntzako sailburuaren abenduaren 5eko 261/2017 Dekretuak Ikerkuntzako Euskadi Saria arautzen du, jarduera zientifiko sustatzeko asmoz, eta Gizarte Zientzien eta Humanitateen modalitateko Ikerkuntzako Euskadi Sariaren deialdia egiten du.

Hezkuntzako sailburuaren 2020ko otsailaren 24ko Aginduak Gizarte Zientzien eta Humanitateen modalitateko 2019ko Ikerkuntzako Euskadi Sarirako Epaimahaia izendatzen du.

Ikerkuntzako Euskadi Saria arautzen duen abenduaren 5eko 261/2017 Dekretuak 10. artikuluan («Esleitzeko prozedura») xedatutakoa betez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Joseba Agirreazkuenaga Zigorrage irakasleari ematea Gizarte Zientzien eta Humanitateen modalitateko 2019ko Ikerkuntzako Euskadi Saria.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoaren 11.

Hezkuntzako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.